



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023ko maiatza

AEMPSREN SEGURTASUN-OHARRAK. ESKOPOLAMINA: BUTILESKOPOLAMINAREKIN NAHASTEAK ERAGINDAKO KONTRAKO ERREAKZIOAK

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

PRESBIDE: APOCARD® FARMAZIA-BULEGOAN ORDEZTEKO BAIMENA

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ESPAINIAN BAIMENDU GABEKO MEDIKAMENTUAK ESKURATZEA: ZINNAT 250 MG/5 ML PIKORTUA AHO-SUSPENTSIORAKO, 70 ML

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

PRESBIDE: I-BOTIKA LOTURA BERRIAK

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC berria argitaratu da

Webean eskuragarri dago INFAC buletin berria, honako izenburu hau duena: «**INFAC metodología: Gutxiagotasun ezaren saiakuntzak; azpitaldeen analisiak.**»

SEFAPeK edozkitzaroa eta medikamentuei buruzko infografia berri bat argitaratu du, pazienteei eta herritarrei zuzendutakoa: **Zer informazio jakin beharko zenuke medikamentuei buruz edoskitzaroan bazaude?**

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

MIKROBIOEN AURKAKO TRATAMENDU-GIDA GERNU INFEKZIOAN

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPSREN SEGURTASUN-OHARRAK. ESKOPOLAMINA: BUTILESKOPOLAMINAREKIN NAHASTEAK ERAGINDAKO KONTRAKO ERREAKZIOAK

Espainiako Farmakozaintza Sistemak (SEFV-H) bost kontrako erreakzio larri jaso ditu, butileskopolamina eman ordez eskopolamina gaizki emateagatik. Gaixoei asistentzia medikua behar izan zuten. Hautemandako akatsek adierazten dute nahasmena medikamentua preskribatzean, banatzean eta ematean ager daitekeela.

Bi printzipio aktiboen oso antzeko izenak nahasgarri bihurtzen ditu. Hala ere, indikazioak eta dosifikazioa oso bestelakoak dira. Medikamentuen fitxa teknikoak AEMPSren Medikamentuen Online Informazio Zentroan (CIMA) kontsulta daitezke.

Eskopolamina oker emateak, hau da, butileskopolamina dosietan emateak, gaindosia dakar, eta ondorio larriak eragin ditzake nerbio-sistema zentrolean. Hauek dira eskopolaminaren gaindosiarenekin seinala eta sintoma bereizgarriak: zefalea, goragalea, gorakoak, ikusmen lausoa, nahasmendua, desorientazioa, memoria-galera eta haluzinazioak.

Segurtasun-ohar osoa ikusteko AEMPS (MUH (FV), 04/2023), egin klik [hemen](#).

Escopolamina y butileskopolamina

Información importante para evitar reacciones adversas por confusión entre ambos medicamentos

Escopolamina		Butileskopolamina
Escopolamina B. Braun	≠	- Buscapina - Butileskopolamina Aurovitas

notificación RAM Se han notificado reacciones adversas graves por la administración errónea de escopolamina en lugar de butileskopolamina

Antes de prescribir, dispensar o administrar el medicamento, verificar el nombre, dosis, forma farmacéutica e indicación correspondientes

MINISTERIO DE SANIDAD | agencia española de medicamentos y productos sanitarios

[HASIERA-ra Itzuli](#)

PRESBIDE: APOCARD® FARMAZIA-BULEGOAN ORDEZTEKO BAIMENA

Pazienteen osasuna babesteko helburuarekin, medikamentu batzuk ezin ditu farmazialariak ordeztu mediku preskripzio-egilearen berriazko baimenik gabe. Medikamentu horien artean daude medikamentu biologikoak, tarte terapeutiko estua duten medikamentuak eta inhalazio bidezkoak.

Duela gutxi, Apocard®-en hornidurarik eza dela eta, eta tratamenduekin jarraituko dela bermatzeko, farmazia-bulegoan FLECAINIDA 100 MG KONPRIMATUAK beste marka batzuekin ordezteko baimena eman da.

Tarte terapeutiko estua duen farmakoa denez, preskribatu duen profesionalak aldaketa horren berri izan behar du, baina ez da beharrezkoa inolako aldaketarik egitea preskripzioan. Pazienteari farmazia-bulegoan jakinaraziko zaio emandako medikamentua normalean hartzen ari zen bera dela.

[Hemen](#) ordezkatu ezin diren medikamentuei buruzko informazio gehiago.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

ESPAINIAN BAIMENDU GABEKO MEDIKAMENTUAK ESKURATZEA: ZINNAT 250 MG/5 ML PIKORTUA AHO-SUSPENTSIORAKO, 70 ML

Zinnat 250 mg/5 ml pikortatua aho-suspentsiorako eta Zinnat 500 mg pikortatua aho-suspentsiorako medikamentuen hornikuntza falta dela eta, baimena eman da atzerriko medikamentuen bidez emateko: Zinnat 250 mg/5 ml pikortua aho-suspentsiorako, 70 ml.

Kontzentrazio desberdina denez, paperezko errezeta bat eman behar da, **hartualdi bakoitzeko bolumena zehaztuta**. AEMPSaren informazio-ohar osoa kontsultatzeko (2023/04/03), sakatu [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

PRESBIDE: i-botika lotura berriak

Duela gutxi, **dokumentazio gehigarriaren** atalean jasotako estekak gehitu dira presbiden.

Atal honetan, profesional sanitarioarentzat interesgarritzat jotzen diren dokumentuak sartzen dira, hala nola: medikamentuak zentzuz erabiltzeko oharrak (URM) edo i-botikako loturak, herritarrentzako medikamentuei buruzko informazioa dutenak. Espero dugu eskura izatea preskripzioari buruzko informazio interesgarria.

Posologia

Datos Adicionales

Modificaciones

Credito Impreso (Recetas)

Credito Dispensado (Eficacia)

Comunicaciones(0)

Dosis por toma 2 COMPRESIDO 2 MG

Pautas cada Acetarse

Duration del emisor en dias 11 dias Emisoras indistintas hasta la fecha de revision 11

☒ Especificar momento de toma según ingestas Momento Después de ingestas

Desayuno

Comida

Merienda

Cena

Acetarse

☐ Especificar momento de toma horario, no asociado a ingestas

☐ Especificar días de la semana de toma

Documentación adicional

☒ Nota URM: Depresión de benzodiazepinas en el embarazo: (si es posible) evitar. Dejar las pastillas para dormir en casa, pero con ayuda externa. Revisar el uso de alcohol y conducir.

Instrucciones al paciente propuestas en Vademécum

☒ Al acetarse.

☒ Puede producir somnolencia.

☒ No suspender la medicación sin consultar.

☒ No tomar bebidas alcohólicas.

Instrucciones al paciente adicionales

Advertencias al farmacéutico

[HASIERA-ra Itzuli](#)

INFAC berria argitaratu da

[Webean](#) eskuragarri dago INFAC buletin berria, honako izenburu hau duena: «**INFAC metodologia: Gutxiagotasun ezaren saiakuntzak; azpitaldeen analisiak.**»

Buletin honen helburua irakurleei tresnak eskaintzea da, ez-gutxiagotasuneko saiakuntzen eta azpitaldeen analisisien irakurketa kritikoa egiteko.

Dokumentuen estekak:

- Buletina [Txostena \(PDF, 547 MB\)](#) 
- Aurkezpena [PowerPointa \(PPTX, 433 MB\)](#) 

SEFAPek edoskitzaroa eta medikamentuei buruzko infografia berri bat argitaratu du, pazienteei eta herritarrei zuzendutakoa: zer informazio jakin beharko zenuke medikamentuei buruz edoskitzaroan bazaude?

SEFAPek edoskitzaroa eta medikamentuei buruzko infografia berri bat argitaratu du apirilean, pazienteei eta herritarrei zuzendua. Bertan, gomendio orokor batzuk laburbiltzen dira, eta nabarmentzen da osasun-profesional bati kontsultatu behar zaiola medikamentuak edo belar-dendako produktuak hartu aurretik, segurtasuna bermatzeko. Gaiari buruzko beste informazio-iturri fidagarri batzuk ere ematen dira, hala nola:

- [e-lactancia](#). Edoskitzaroko medikamentuei buruzko informazio-bilatzailerak. Medikamentuak arriskuaren arabera sailkatzen ditu: arrisku oso txikia, arrisku txikia, arrisku handia eta arrisku oso handia. E-lactancia weborriko informazioa osasun-arloko profesionalek ematen dute. Egungo argitalpen zientifikoetan oinarritzen da.
- [Mother to Baby](#). Medikamentuek haurdunaldian eta edoskitzaroan duten eraginari buruzko informazioa duen orria. Informazio-orriak ditu, Estatu Batuetako eta Kanadako Informazio Teratologikoko Espezialisten Erakundeak (OTIS) egindako galdera ohikoenei erantzuteko (ingelesez eta gaztelaniaz dago eskuragarri).
- [Drugs in pregnancy and breastfeeding](#). Haurdunaldiko eta edoskitzaroko medikamentuei buruzko beste informazio-iturri batzuekin lotzen den orria (ingelesez bakarrik dago eskuragarri).
- Espainiako Pediatria Elkartearen [Lactancia materna](#) eta [LactApp](#) bezalako aplikazioak, edoskitzeari buruzko zalantzak argitzeko doan deskargatu daitezkeenak.

SEFAPen infografia honetara eta beste batzuetara sar gaitzke haren [webgunean](#), edo zuzenean [hemen klik eginez](#).




Tu Farmacéutico de Atención Primaria te ayuda

¿QUÉ INFORMACIÓN DEBERÍAS SABER SOBRE LOS MEDICAMENTOS SI ESTÁS EN PERIODO DE LACTANCIA?

Si tienes que tomar medicamentos en el periodo de lactancia pregunta a tu profesional sanitario para hacerlo de forma segura.

Muchos medicamentos son compatibles con la lactancia, aunque **algunos no se recomiendan** ya que pueden afectar a tu bebé. Antes de empezar a tomar un medicamento, planta o producto de herbolario, **pregunta a tu profesional sanitario.**

¿Debo dejar la lactancia si tengo una enfermedad crónica y tomo medicación de forma habitual?

No, primero consulta a tu profesional sanitario. Muchos medicamentos se pueden tomar durante la lactancia.

¿Cuándo debo tomar el medicamento?

Se recomienda administrarlo **después de la toma de leche y/o justo antes del periodo más largo de sueño del bebé.**

¿La salud y la edad del bebé influyen?

Sí, hay más riesgo en bebés prematuros y en los primeros meses de todos los recién nacidos.

¿Qué puedes hacer ante un malestar transitorio?

- Muchas molestias son leves y se resuelven por sí solas. Si tienes dudas, consulta a tu profesional sanitario.
- Los medicamentos que **pueden usarse en niños** normalmente son **seguros** en la lactancia (ejemplo: paracetamol, ibuprofeno).
- Intenta emplear la **mínima dosis** que sea eficaz para tí, durante el **menor tiempo posible**.
- Siempre que sea posible, lo mejor es utilizar medicación por **vía tópica** (cremas, pomadas...).
- Es preferible **no usar** medicamentos que estén **compuestos por varios fármacos**.

Existen webs y apps que te pueden ayudar. Ejemplo: <https://www.e-lactancia.org/>

Ante cualquier duda, consulta a un farmacéutico u otro profesional sanitario

Bibliografía:

- Utilización de fármacos en la lactancia. Boletín INFAC Volumen 8 - N° 19 / Nov-Dic 2000
- Medicamentos y lactancia. Monografías CADIHE. Número 19. Año 2001
- Drugs and Lactation Database (LactMed®)

Atribuciones de imágenes: Ilustración de leche materna pertenece a Freepik (R). Resto de imágenes pertenecen a Genially (R)

Última revisión: 04/2023. N° 19

Editado en Madrid por la Sociedad Española de Farmacéuticos de Atención Primaria (SEFAP)

ISSN 2952-1734

Para consultas o información sobre conflictos de intereses:

pacientes@sefap.org

Autores (en orden alfabético del 1er apellido): B. Basagoiti Carreño (CPC, SEFAP), A. Gil Valiño (CPC, SEFAP), E. Prieto Uribe (CPC, SEFAP)

Revisión interna: C. Mozo Avellaneda (CPC, SEFAP)

SEFAP_lactancia y medicamentos.pdf - Adobe Acrobat Reader DC

medicamentos en

HASIERA-ra Itzuli

6 HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIk garrantzitsuenak:

- **Apocard 100 mg 30 eta 60 pilulak.** Flekainida.
- **Bactroban 20 mg/g sudurreko pomada.** Mupirozina
- **Condrosulf, Condrosan, Droglican, 400 mg, kap.** Kondroitina sulfatoa bakarrik eta elkartua.
- **Dalacin® 100 mg, 3 obulu baginal.** Klindamizina
- **Fiasp 100 U/ml soluzio injektagarria biala.** Aspart intsulina.
- **Fluidasa® 150 mg pilulak.** Mepefilina.
- **Livogiva 20 mcg/80 mL luma.** Teriparatida.
- **Pezimax 2 mg/ml ahozko sol., 150 ml-ko flaskoa.** Donepezilo.
- **Timolol Sandoz 5 mg/ml kolirio flaskoa 3 ml** Timolola.

Hemen HORNIDURA-BERREZARPENAK apirilean:

- **Adartrela, Requib 0,25 eta 0,5 mg pilulak.** Erropinirola.
- **Astonin 0,1 mg pilulak.** Fludrokortisona.
- **Dumirox/Fluvoxamina EFG 100 mg, pilulak.** Fluvoxamina.
- **FML 1 mg/ml kolirioa 5 ml.** Flurometolona.
- **Ibuprofenoa % 2 200 ml, jarabea.** Ibuprofenoa.

- **Metoklopramida kern pharma 1 mg/ml ahozko sol. -250ml.** Metoklopramida.
- **Noiafren 10 mg, pilulak 20/kutxa** Klobazama.
- **Sinogan 25 mg, 20 pilulak.** Lebomepromazina.
- **Sumial/Propanolol 40 mg pilulak.** Propranolola.
- **Synalar otikoa, tantak.** Fluoizinolona.

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- [Hornidura-gabezien taula](#): Presbiden, zuzenean taula honetara daraman “Hornidura ezak” botoia txertatu da:



CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

MIKROBIOEN AURKAKO TRATAMENDU-GIDA GERNU INFEKZIOAN

Arabako ESlaren LMAko mikrobioen aurkako gidak eguneratzeko lantaldeak [GUÍA DE TRATAMIENTO ANTIMICROBIANO EN INFECCIÓN URINARIA](#) argitaratu du. Arabako ESlaren intranetean aurki daiteke:

> eu > Osasuna > Profesionalentzako laguntza > Protokoloak, Prozedurak, gidak, Lehen Mailako Arretako laguntza-dokumentuak > PROA-LMA

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetan jasotako edukiak Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileko buletinetik egokitu dira.